



## **ORDIZIAKO SAN JOANGO ZOZKETARAKO BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK**

**San Joango BOE-n bigarren zozketarako behin-behineko zerrendak jende aurrean daude**

San Joan auzoan eraikiko diren beste 60 babes ofizialeko etxebizitzaren zozketarako onartu eta baztertuen zerrendak argitaratu dira gaur, ostirala, [web \(http://www.ordizia.org\)](http://www.ordizia.org) gune honetan eta udaleko Herritarren Arreta bulegoan eta Udaltzaingoan. Zerrendetan eskatzaileak identifikatzeko nortasun agirien zenbakiak daude soilik, izen eta abizenak agertzen ez direlarik.

Baztertuek alegazio-idazkia aurkez dezakete uztailaren 20ko 13.30ak baino lehen, alegazioa arrazoitzen duen dokumentazioarekin batera. Bazterketa arrazoiak bi izan daitezke: eskatzailea 2005eko uztailaren 1a baino lehenagotik Ordizian erroldatuta ez egotea edo bere bizitzaren %75a Ordizian erroldatuta egon ez izana. Erreklamazio-idazkia eta dagokion dokumentazioa Herritarren Arreta bulegora (Kale Nagusia 24, astelehenetik ostiralera, 8.30etatik 13.30etara, tef: 943 88 58 50) edo Udaltzaingora (Kale Nagusia 26, 21.00ak arte, larunbatak barne, tef:943 80 56 16) eramane behar da, Ordizia Lantzen S.A. erakundeari zuzenduta.

Uztailaren 21ean behin-betiko zerrenda emango da ezagutzera, onartu bakoitzari dagokion zozketa-zenbakiarekin, udaleko webean, Udaltzaingoan eta Arreta bulegoan.

Zozketa jende aurrean uztailaren 22an (osteguna) egingo da Herri Antzokian, 18.00etan.